

Podcast korporatiboak



IRRATIA
Arantza Gutierrez Paz

Gutako askok gogoratzten dugu iragarki baten melodia edo *jingle*-a, eta segur aski soinu zehatz bat lotzen dugu marka edo produktu batekin, eta askotan behin eta berriz mailukatzen gaitu, buruan itsatsita, uxatu ezinik. Izan ere, musikak rol garrantzitsua jokatzeko du publikitatean. Enpresek, markak eta erakundeek soinu komunikabide nagusia den irratia bera ere erabili ohi dute beren produktuak ezagutzera emateko, besteak beste irratia soinu korporatiboak sortuz.

Eta podcastak modan dauden honetan, urrats logiko moduan, podcast korporatiboak edo *branded podcast* ditelakoak sortu dira, eta ez dira falta kanpaina bat diseinatzean agentziek eskaintzen dituzten produktuen artean. Ikus-entzunezko iragarria baino merkeagoa eta ekoizteko errazagoa, entzuleria zehatzari zuzendua eta edozein toki eta garaitan entzun daitekeena, esan genezake balio erantsia eskaintzen diola iragartzeko denari, arrakasta frogatua duen euskarria baita; hori da, behintzat, ikerketek diotena. Hego Euskal Herrian horren adibidea dugu Laboral Kutxak

eskaintzen duen saioa. 2021etik euskal kultura eta komunikazio erreferenteak diren hemeretzi gizon eta bederatzik emakume elkarrizketatu dituzte; solasaldi horietako hamabost gaztelaniaz egin dira eta gainerakoak euskaraz. Eroskik ez du gure hizkuntza erabili, ordea, *La vida más fácil* izenekoan, non ondo bizitzeko gakoak eskaintzen dituzten pertsonak (ta denak emakumeak) elkarrizketatu dituzten. Euskara ez dago presente ihobek bultzatzen duen *En Verde/Berdean* saioan ere, ezta Innobasquerenean ere. Bi hizkuntzatan eskaintzen du URA agentziak *Ur Tantak* saioa;

uraren inguruko erreportaje ezberdinak jasotzen dituzte. Lagun batek aspaldian esan zidan euskaldunok euskaraz iragartzen ez diren edo artatzen ez gaituzten produktuak kontsumituko ez bagenu behar bada hizkuntza kontuan hartuko luketela atxikimendu faktore garrantzitsu moduan. Dena den, irudipena dut *branded podcast* saio horiek ez dutela harrera berezirik entzuleen artean, eta horien gustuak lotuago daudela istorioak kontatzen dituzten podcastekin. Hala ere, ezin ukatu lerro berriak sortzen ari direla irratia edo soinu publikitatean, betiko taketetik harago. ●

Gabilondorekin murmurrean (eta III)



PANTAILAEN ARTETIK
Urtzi Urkizu

Datorren asteazkena, abenduak 25. Betekaden ostekoan, telebista pantailaren aurrean geldituta egoteko gau egokia. ETBiek Paul Urkijoren *Irati* filma emango du, 21:45ean. Gau horretan afaltzen ez bada ere, arazorik ez. Euskaldun askok dute ikusia dagoeneko *Irati*, eta, bigarren ikustaldiari ekin aurretik, Joseba Gabilondok pelikularen inguruan idatzitako erreportajeak ere egokia izan daitezke. Aurreko bi igandeetan, *España postimperial. Ideologías del imperio restaurativo* liburuan jasotakoak izan dira amu. Eta artikulu gehiagorako eman zezakeen lan horrek; Antonio Banderas, Belen Esteban, Rosalia, Pablo Iglesias... pertsonaia horien ingurukoak zizelkatzen ditu irakasleak. Bada, *Irati: etnizitatearen itzulera berri eta beharrezkoak ohar batzuk* artikulu luzeak ere badu mamia. Gabilondoren ustez, *Irati* Euskal Herriko errealitate politiko eta kulturala interpretatzeko filmik garrantzitsuenetakoa da. Bitxia da baieztapen

hori, filmaren istorioa VIII. mendean girotua baitago. Aurrekaritzat jotzen du irakasle eta idazleak Francisco Navarro Villosladaren *Amaya o los vascos en el siglo VIII* (1877) liburua. *Irati*-ren jatorrizko testua hor dagoela dio. Nahiz eta pelikulako egileek Joxean Muñozen eta Juan Luis Landaren *El ciclo de Irati* nabarmentzen duten. «*Irati* filmak, *Amaya* eleberriak bezala, maila mitiko batean funtzionatzen du, berriro ere Euskal Herri paganoa berpiztuz», idatzi du Gabilondok. *Amaya-Irati* mitoak ez duela indarririk galdutako gaineratu du. Edonola ere, filmeko aurrekontuen baldintzak eta aukerak xehatu eta gero, Gabilondok ausardiak honako hau jaurtitzen du: «Jakin beharko genuke mito amaier-iratiarra euskal abertzaletasunaren erroan dagoen gaitz arrazista eta bortitzaren —irakurri hemen ETA— eragile ideologiko nagusietakoa dela. Are, gogora dezagun Bernardo Atxagak ere bere lehen arrakasta mito etniko horri heldurik lortu bazuen ere [Obaba], laster konturatu zela errealismo burgesa zela gerorako joera narratiboa eta, beraz, ETaren eta nevadarren narrazio errealistak idazten amaltu zuela». Paul Urkijo zinemagilearen pelikulak Euskal Herrian arrakasta lortu du. Bestalde, Gabilondok gogoratu du Euskal Herrian gazteleza idazten den literaturarik arrakastatsuenak historiari eta mitora jotzen duela, Toti Martínez de Lezearen eta Dolores Redondoren eskutik. Eta aipatzen du mitoaren eta etniaren indarra zertan den esplikatu beharra dagoela, Chill Mafakoek txandalean Xabier Leteren kantu baten bertsioa egiten dutenean dagoen nahasketa behatzean.



Edurne Azkarate, *Irati* filmean. BERRIA

«Argi dago, XIX. mendeko Navarro Villosladaren literatura erromantiko foralistaren garaitik, behintzat, euskal etnizismo aurre-kristauaren lilurak eta berorren eraketa mitikoaren erakargarritasunak erreprimittutako errealitate bat haragitzen dutela: beti adierazten dute desagertu den edo desagertzear den euskal mundu pagano burujabe bat». Arrazoiarekin errepikapenaren logikan dagoela iruditzen zaio Gabilondori: «Era errealista batean adierazi ezin daitekeen historia eta errealitate bati buruz mintzo da mito etnikoa, eta faktualki edo historikoki adierazi ezin daitekeenez, berriro ere itzultzen da». Horietara itzuliko dira euskal sortzaileak etorkizunean ere, Euskal Herriaren egitura politiko aldatzeko ez den neurrian, bederen. *Irati*-ren moduko filmak ez dira uharte bakanak. Idazlearen arabera, «amaier-iratiarrak» dira mundu osoan ekoizpen arrakastatsuenak. Bestetik, nabarmendu du Hollywoodek ulertu

duela emakumeengana eta zuria ez den beste arrazetara ere hedatu behar duela bere fantasiazko zinema. «Baina, hain zuzen, hori da dugun historia hegemonikoa: imperialista, ipar europarra, heteropatriarkala, zuria». Gabilondok, aipatutako guztia esan ostean, ihardetsi du *Irati*-k euskal ezkerri «oso mezu indartsua» bidaltzen diola: «Ez ahaztu etnizitate mitiko zaharkitu, *faltsu* eta *erreprimittuaren* itzuleraren garrantzia. Ez izan arrazionalak bakarrik, ez izan ezker ilustratu ereduagarri baina azken batean aspergarri, serio eta erakargarritasunik gabek». Idazleak uste du instituzionalizazioak, kudeaketak eta estatalizazioak sortzen dituen zinezko arazoek hor segitzen dutela, «erreprimittuaren itzulera mitikoaren bidez bakarrik azaldu daitezkeen *errealitate politiko eta ekonomiko* horietan». Pello Otxandiano EH Bilduko bozeramaileak berriki esan du «estatu konfederallean» aurrera egin behar dela, «Espainiako Konstituzioaren barne». ●